

## GIL 33 Azazeta mendateko Goi Kretazeoa



Azazeta mendateko Goi Kretazeoko kalkarenita eta tuparrien itxura.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 48' 6,60" N

Long.: 2° 31' 47,49" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 538.443,38 m

Y: 4.738.916,13 m



### Nola iritsi

N-1 errepidetik, hartu A-3140 errepidea Dulantzi alderantz; herrigunera iritsita, hartu A-3112 errepidea Egiletarantz (S); gune hori pasatu ondoren, hartu A-132 errepidea Maetzu alderantz. Mendateko lehen aldapetan, kareharriak errepidearen eskuineko ezpondan azaleratzen dira 300 metroan zehar.

## GILaren deskribapen laburra

Campaniar-Maastrichtiar adineko sekuentzia sedimentario itsastar adierazgarria; fazies asko nabari dira, hala nola kareharriak, tuparriak, kalkarenitak eta tarteko forma guztiak. Formazio hori Urbasa mendilerroko ezpondaren ezaugarria da, eta, mendebalderantz jarraituta, lehen malkarrak sortzen ditu: Gasteizko mendiak.

Azaleratzea errepideko ezpondan ikus daiteke; kalkareniten eta tuparri-arroka bigunagoen txandakatze batez eratuta dago. Azaleratzearen 300 metroetan, zenbait zona ikus daitezke non tuparriak, kareharriak edo kalkarenitak nagusitzen diren.

Faunari dagokionez, foraminifero bentoniko handiak, planktoniko batzuk, kare-algak, ostrakodoak, moluskuak, ekinodermatuak eta brio zooak ikus daitezke.

Faziesen antolaerari erreparaturik, interpreta daiteke ingurunea barne-plataforma bat zela, gehienbat mendebaldetik datorren ekarpen terrigeno ugariakoa.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*. Errepide-bazterbide arriskutsu bat da. Ez da gomendatzen bisitatzea.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:**
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 150, GIL 122.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa	●			
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Plataforma-inguruneetako Kretazeoaren amaieraren adierazgarria delako hautatu da GIL hau.				